


ERRIBERRI_{KO} ANTZERKI JAIALDIA

UZTAILAK 21 - ABUZTUAK 6

2023

www.FestivalTeatroOlite.es

#AntzerkiaErriberri2023



SARREREN SALMENTA EKAINAREN 9^{TIK} AURRERA



Informazio gehiago
www.FestivalTeatroOlite.es

SALMENTA ONLINE

www.FestivalTeatroOlite.es | www.baluarte.com

SALMENTA LEIHATILAN

BALUARTE

T. 948 066 060

- **Ekainaren 9tik uztailaren 5era**, 11:00–14:00 /17:00–20:00. Astelehenetik larunbatera. Igandeetan itxita.
- **Uztailaren 6tik 16ra** leihatila itxita egongo da.
- **Uztailaren 17tik abuztuaren 5era**, de 11:00–14:00. Astelehenetik larunbatera. Igandeetan itxita.

LA MOREA MERKATAGUNEA

Asteko egun guztietan irekita (igande eta jaiegunetan izan ezik) 09:30–21:30, ordutegi jarraian.

ERRIBERRI

T. 848 423 223

- Ekainaren 9tik aurrera, asteburuetan eta jaialdian zehar, Enozentrumen (Teobaldoren plaza, 4, Erriberri).
- Ostiraletan, 17:00–19:00.
- Larunbat eta igandeetan, 10:00–14:00.
- Ikuskizun egunetan, 19:00–22:00etara.

CENTRO CULTURAL TAFALLA KULTURGUNEA

T. 948 755 969

Exit through the gift shop, Carla Rovira (prezio bakarra 3 €); *Archipiélago*, *La Trapecionista* eta *Sexpirtos*, *Tantaka Teatro* (prezio bakarra 8 €).


Sarrerak Tafalla Kulturguneko leihatilan soilik daude salgai, eta online ekainaren 9tik aurrera https://es.patron-base.com/_Tafalla/Productions webgunean.

BEIREKO EZPELETA JAUREGIA (BEIREKO ATERPEA)

Sarrera librea lekua bete arte.

	Prezioak online eta leihatilan, ekainaren 9tik Aurrera	Gazte Txartela online eta leihatilan,ekainaren 9tik aurrera
La Cavako ikuskizunak	18 €	10 €
Abonamendu osoa La Cava (12 emanaldi)	190 €	100 €
3 lanerako abonamendua La Cava (edozein egunetan aukeratzeko))	50 €	25 €

MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN PERTSONAK Erriberriko Antzerki Jaialdian, emanaldi bakoitzerako lau leku daude gordeta mugikortasun murriztua dutenentzat. Sarrera horiek erosi nahi dituztenek Baluarteko eta Erriberriko txarteldegietan edo 948 066 060 telefono zenbakiaren bidez egin beharko dute (bi sarrera gehienez erosketa bakoitzean). Hartara, Antzerki Jaialdiak ezin die bermatu beren beharretarako kokaleku egokia izatea, gordetako leku horietarako ez den sarrera erosten duten mugikortasun murriztuko pertsonen. Edonola ere, antolatzaileak saiaturako dira ikus-entzule horiek kokatzen esparruak eskaintzen dituen aukeren barnean.



ERRIBERRIKO EMOZIOA

Erriberriko Antzerki Jaialdia 2023an itzuliko da, iaz Ane Pikaza eta Maria Goiricelaya zuzendari artistiko berriek ikuspegi sozial eta garaikidearekin hasitako proiektua sendotzeko asmoz. Edizio inklusibo eta jasangarria izango da, eta antzerkigile berriak bultzatzearen aldeko apustua egiten jarraituko du, San Martin de Unxen ikusi ahal izango ditugun proposamenekin, Erriberri zabalduaren kontzeptuari jarraituz, Tafalla eta Beirerekin batera.

Programazio paritarioa izango dugu, non sortzaileak, antzerkigileak eta zuzendariak aurkituko ditugun; non antzerkia, dantza, prestakuntza-tailerrak, egoitza sortzaileak eta ikusleen eta sortzaileen arteko topaketak elkarrekin bizi diren. Proposamen horiek osagai sozial nabarmena dute, eta hainbat gai jorratzen dituzte, hala nola ustelkeriaren arriskua, amatasunaren garaiko arrakastaren kontzeptua, maskulinitateak, identitatea edo eskubide sozialen aldeko borroka. Hamabost egunez, Erriberriko Antzerki Jaialdiak iraganari eta orainaldiari begiratzen dion edizio bat jasoko du, promesa gazteen eta izen ospetsuen sinadura daramaten izenburuekin.

Aurtengo karteletako pertsonaiek erakusten duten ilusioak eta magiak eta bonbillak antzezpen baten inguruko emozioa islatzen dute. Erriberriko Jaialdiaren etorrerak eragindako emozioa ere bada, 2023an proposamen nazional eta nazioartekoen aldeko apustua egin baitzuen. Eta, jakina, baita bertako konpainiek eta artistek ere, Nafarroako arte eszenikoen sormena ikusarazteko aukera daukate. Emozioz beterik ekingo diogu Erriberriko Antzerki Jaialdiaren edizio berri honi, eta eserlekuak hartzera gonbidatzen zaituztegu.

Rebeca Esnaola

Kultura eta Kirol kontseilaria



**THE FUTURE
IS NOW**

**EL FUTURO
ES AHORA**

**ETORKIZUNA
ORAIN DA**

Etorkizuna ez da existitzen; hori badakigu. Orainaldi zorabiagarri bateko biztanleak gara, non kultura arnastea bezain beharrezkoa den; non antzerkia gure nortasunari itsatsitako leku hori den, non elkar ikusi, sentitu eta ezagutuko dugun. Antzerkiaren beharra dugu nor garen, zein mundutan bizi garen eta zein gizarte eraikitzen dugun jakiteko.

Erriberriko Antzerki Jaialdiak orainaldi bizi honen motorra izan nahi du, eta gure lagun izan nahi duten pertsona guztiekin partekatu nahi du amesten dugun eta batere erraza ez den bide hori eragin, gozatu eta elkarrekin deskubritzeko nahia, askeago, kritikoago eta gizatiarrago bihurtuko gaituena. Kultura, eta, kasu honetan, antzerkia, gure inguruan gertatzen denaren eztabaidagune bihurtzea. Egunero aurrez aurre jartzen gaituzten gai konprometitu eta deseroso horiek bultzatu eta ikusleak astindu, hunkitu, harekin gozatu.


Hau da Erriberri: bizitzaren ospakizun handi bat, non elkartu partekatzeko ideiak, emozioak, zalantzak. Ziurtasunik gabeko espazio bat, pertsona sentitzearen edertasuna ospatzeko ditugun ahuleziak eta kontraesanak azalduko dituen; hausnarketak elkargune berrietara, besarkada berrietara, etortzearen dauden abentura berri horietara bultzatuko gaituen lekua.

Buruak zabaldu, artea bultzatu eta harekin amets egin. Bizitzen ari garen une hau, hainbeste aipatzen dugun etorkizun hori bihurtzea. Goza dezagun belaunaldi guztiei, publiko guztiei eta gure mundua astintzen duten arazo guztiei begiratzen dien jaialdiaz. Jaialdi horrek Nafarroako eszena zaindu eta bultzatzen du, eta Espainiako zein nazioarteko jaialdi handien arteko bide temati eta ausartari jarraitzen dio. Berdintasuna sustatu eta inklusioa besarkatzen duen jaialdi parekide eta feminista, normaltasunetik desberdintasunaren balio artistikoa aldarrikatuz. Aniztasunaren eta askatasunaren etxea.

Dena da gaur. Bizitza da gaur. Libre izan gaitzeen gaur.

Ane Pikaza & María Goiricelaya

2023ko Erriberriko Antzerki Jaialdiaren
Zuzendari Artistikoak





UZTAILAK 21

19:30 / TEOBALDOEN PLAZA,
ERRIBERRI



LA PARTIDA

COMPañIA VERO CENDOYA

Bost dantzari, bost futbolari, futbol-zelai bat eta arbitro bat partida berezi batean bilduta, arau propioekin.

22:00 / LA CAVA



LA INFAMIA

Lydia Cacho
PRODUCCIONES COME Y CALLA
Zuzendaria: **José Martret**

2005ean, Lydia Cacho kazetari eta ekintzaile mexikarra bahitu eta torturatu zuen poliziak, enpresari eta politikari garrantzitsuak inplikatzeko zituen pederastia sare bat liburu batean salatzeagatik.

24:00 / KARLOS III PLAZA,
ERRIBERRI



RAIMUNDO EL CANASTERO

Jarana hutsa, alaitasuna eta axolagabekeria barra-barra, azkenean runba, txalo eta jaleo erritmoan publikoa kutsatzen duena, parte-hartzaile bizia eginez.

UZTAILAK 22

13:00/ ENOZENTRUM,
ERRIBERRI

TOPAKETA "LA INFAMIA"

Daniel Galindo, Machús Osinaga
eta Raúl Losanezekin

19:30 / TEOBALDOEN PLAZA,
ERRIBERRI



LA MEDIDA QUE NOS HA DE DIVIDIR

QABALUM

Dantza garaikideko kolektibo honek gorputzaren aldeko apustua egiten du motor artistiko gisa eta bere praktikaren giltzarri gisa.

22:00 / LA CAVA

MUJER EN CINTA DE CORRER SOBRE FONDO NEGRO

Alessandra García
CÍA. ALESSANDRA GARCÍA
Egilea eta zuzendaria: **Alessandra García**

2022ko ikuskizun errebelazioaren MAX saria. Ehungintzako superproduktzioari, kapitalismoari, entretenimenduari, kulturari, hizkuntzei, moteari eta zerbitzuen sektoreari buruzko gogoeta egiten du barrearen eta pentsamenduaren bidez.

UZTAILAK 23

13:00 / ENOZENTRUM,
ERRIBERRI

TOPAKETA ALESSANDRA GARCÍA (MUJER EN CINTA DE CORRER SOBRE FONDO NEGRO)

Daniel Galindo, Machús Osinaga
eta Raúl Losanezekin

22:00 / LA CAVA

CASA

Dramaturgia eta zuzendaritza:
Lucía Miranda
CROSS BORDER

Verbatim dokumentu-lan honetarako berrogei pertsona elkarrizketatu ziren belaunaldien arteko kontakizun batean, Konstituzioaren 47. artikuluari buruz eta itzulerako bideari buruz galdetuz.

UZTAILAK 24

UZTAILAK 24, 25, 26, 27 ETA 28
11:00-14:00 / ERRIBERRIKO
KULTUR ETXEA

TAILERRA: DESAPRENDER A VIVIR. APRENDER A CONTAR

Maria Velascoekin

UZTAILAK 24, 25, 26, 27 ETA 28
11:00-14:00 /
FRANTZISKOTARREN ESKOLA
ZAHARRAK, ERRIBERRI

AUTOFICCIÓN UTÓPICA

8-18 urte bitartekontzat tailerra,
Carla Rovirarekin.

UZTAILAK 26

19:30 / CENTRO CULTURAL
TAFALLA KULTURGUNEA

EXIT THROUGH THE GIFT SHOP

CARLA ROVIRA

Mozorrotutako autofikzioa, hirugarren pertsonan kontatua, nagusitutako narraitibaren ereduarekin bat ez datozen esperientziei nola aurre egin azaltzen duena.

22:00 / LA CAVA

PERSÉFONE

Egilea eta zuzendaria: **Miguel Goikoetxandia**
ILUNA PRODUCCIONES

Infernura jaitea, indarkeria, abusu, justizia eta mendekuaren drama ilun batean.

UZTAILAK 27

19:30 / CENTRO CULTURAL
TAFALLA KULTURGUNEA

EXIT THROUGH THE GIFT SHOP

CARLA ROVIRA

22:00 / LA CAVA

SIMULACRO

Egilea eta zuzendaria: **Ion Iraizoz**
CIA. ION IRAIZOZ

Komedia supererrealista honetan, bi pertsonak itxuraz egunerokoak diren egoerak simulatzen dituzte.

UZTAILAK 28

UZTAILAK 28 16:30-20:30
UZTAILAK 29 eta 30
09:30-14:00/ ERRIBERRIKO
KULTUR ETXEA

HAZ QUE PASE

Sorkuntza tailerra profesionalentzat eta ez-profesionalentzat Teatro en Vilorekin.

19:30 / ERRIBERRIKO ERRET
JAUREGIA, SARRERAKO
PATIOA



TRAPU ZIKINAK

Lucía Ezker
LORE MORE

Gerraosteko pobrezia, adiskidetasuna, patriaren bidegabekeria, maitasuna, lana eta etorkizunerako nahiak izango dira garbitzera dedikatzen diren emakume batzuen protagonistak.

22:00 / LA CAVA

SOLO ME ACUERDO DE ESO

Egilea eta zuzendaria: **Johan Velandia**
LA CONGREGACIÓN TEATRO

Ikasle gazte bat agertzen da, goizaldean eta oroimenik gabe, Bogotako erdiguneko kale batean, bi usoren konpainia bakarrekin.

UZTAILAK 29

19:30 / CENTRO CULTURAL
TAFALLA KULTURGUNEA

SEXPIERTOS

Kepa Errasti eta Telmo Irueta
Zuzendaria: **Mireia Gabilondo**
TANTAKA TEATROA

Diotenez, Anaren bihotza logela hutsa omen da. Nicok berea

tatuatu nahi du. Iggailu batean harrapatuta daude eta ezezagunak izatetik lagunak izatera pasako dira.

22:00 / LA CAVA

MAN UP

Dramaturgia eta zuzendaritza: **Andrea Jiménez eta Noemi Rodríguez**
TEATRO EN VILO

Maskulinitatearen kontakizun tradizionala eta bere erreferenteak agerian uzteko proposamena, ironia, lotsagabekeria eta umore absurduaren bidez.

UZTAILAK 30

12:00 / ENOZENTRUM,
ERRIBERRI

NAFAR KONPAINIEKIN TOPAKETA. JASANGARRITASUNA ARTE ESZENIKOETAN: ETXEKO KONPONBIDEETARAKO ELKARRIZKETA IREKIA

Jemima Canorekin

19:30 / TEOBALDOEN PLAZA,
ERRIBERRI

AL OTRO LADO

Sorkuntza kolektiboa
ZANGUANGO TEATRO
Zuzendaria: **Miguel Muñoz**

Oihala bizirik dagoen edozein hiri-espaziotan, errealtatearen eta fikzioaren artean surfear, 2020an kaleko ikuskizun onenaren Max Saria jaso zuen ikuskizun batean.

22:00 / LA CAVA

EL MAR. VISIÓN DE UNOS NIÑOS QUE NO LO HAN VISTO NUNCA

Egilea eta zuzendaria: **Xavier Bobés eta Alberto Conejero**
XABIER BOBÉS ETA ALBERTO CONEJERO

Bete ezin izan zen promesa baten istorioa, Antoni Benaiges maisuak 1936an bere landa-eskola bateko ikasleei egin ziena.

ABUZTUAK 1

20:00 / TAFALLA

EGONALDIA: LA MONTAÑA MENDIA

MIKELE URROZ ZABALZA ETA LUCÍA EZKER REKALDE

ABUZTUAK 2

19:00 / UDAL APARKALEKUA,
SAN MARTIN UNX

OLVIDO FLORES. LAS MARAVILLAS DE JÚPITER

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN

Olvido Flores edertasun mingotsez, poesiaz, zirkuz eta gerraz betetako istorio bat kontatzera datorkigu, objektuen lengoaiarekin batera, oroimenari egindako omenaldi batean.

20:00 / BEIRE

EGONALDIA: TORCIDAS

LAS NENAS THEATRE

20:00 / CENTRO CULTURAL
TAFALLA KULTURGUNEA

ARTXIPIELAGO

Koreografia eta zuzendaritza: **Maitane Azpiroz**
LA TRAPECIONISTA

Bidaia bakartia eta, aldi berean, biolontxelo baten konpainiarekin, une esekiekin, aireko dantzarekin eta protagonistarekin batera eraldatzen den paisaia batekin.

ABUZTUAK 3

19:00 / UDALETXE PLAZA,
BEIRE

OLVIDO FLORES. LAS MARAVILLAS DE JÚPITER

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN

20:00 / ERRIBERRI

EGONALDIA: LA MONTAÑA MENDIA

MIKELE URROZ ZABALZA ETA LUCÍA EZKER REKALDE

22:00 / LA CAVA

LA MALPAGÁ

Dramaturgia eta zuzendaritza: **Ana Maestrojuán**
PRODUCCIONES MAESTRAS

Gaur, 1990eko urtarilaren 8an, *Clara in the Dark* vedettearen zain gaude bere show berria estreinatzeko.

ABUZTUAK 4

19:00 / KONDEAREN PARKEA,
TAFALLA

OLVIDO FLORES. LAS MARAVILLAS DE JÚPITER

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN

20:00 / ERRIBERRI

EGONALDIA: TORCIDAS

LAS NENAS THEATRE

22:00 / LA CAVA

CLAUDIA

Dramaturgia eta zuzendaritza: **Carles Fernández Giau**
LA CONQUESTA DEL POL SUD

21 urterekin, desagertuen alaba zela eta bizitza asmatua bizi izan zuela jakin zuen Claudiak. Bere kasuak inflexio-puntu bat markatu zuen Argentinan.

ABUZTUAK 5

20:00 / EZPELETA JAUREGIA
(BEIREKO ATERPEA)

UN SEGUNDO BAJO LA ARENA

Col·lectiu Desasosiego, Lorcaren *Bodas de Sangre* lanean oinarrituta
COL·LECTIU DESASOSIEGO

Aire zabaleko ikuskizuna, antzerkia eta zuzeneko musika nahasten dituen, Federico García Lorcaren *Bodas de sangre* lanaren argumentuan oinarrituta.

19:00 / GURPILAREN PLAZA,
ERRIBERRI

OLVIDO FLORES. LAS MARAVILLAS DE JÚPITER

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN

22:00 / LA CAVA

LAS GUERRAS DE NUESTROS ANTEPASADOS

Miguel Delibes
PENTACIÓN Y SECUENCIA 3
Zuzendaria: **Claudio Tolcachir**

Gerren indarkeriaren aurkako oihua da Miguel Delibesen eleberraren ildo nagusia, 1975ean argitaratua.

ABUZTUAK 6

20:00 / EZPELETA JAUREGIA
(BEIREKO ATERPEA)

UN SEGUNDO BAJO LA ARENA

Col·lectiu Desasosiego, Lorcaren *Bodas de Sangre* lanean oinarrituta
COL·LECTIU DESASOSIEGO

22:00 / LA CAVA

ECLIPSE TOTAL

Dramaturgia eta zuzendaritza: **Àlex Cantó, Joan Collado, Jesús Muñoz eta Pau Pons**
PONT FLOTANT

¿Nola bizi gara egun batean bizirik egoteari utziko diogula jakinda? Erabateko eklipsea metafora gisa, aurrerapen gisa, helmuga gaudiezin baten entsegu gisa: gure egunen amaiera.

LA PARTIDA

COMPañÍA VERO CENDOYA



UZTAILAK 21 OSTIRALA

TEOBALDOEN PLAZA, ERIBERRI
19:30



Futbolak inbaditutako kontinente batean, ezinezkoa da futboletik bazter bizitzea. Oraingo honetan, gure aurkariaren kontra borrokatu beharrean, harekin egin dugu bat.

La partida dantza edo futbol ikuskizuna da, Vero Cendoya koreografoak sortua, dantza garaikidea eta haren antagonikoak uztartu dituen proposamen berriaren bidez.

Bost neska dantzari, bost futbolari, futbol-zelai bat eta arbitro bat, bere arauak dituen partida ezohiko batean bildurik.

AKTOREAK

Natalia D'Annunzio, Linn Johansson, Carla Sisteré, Anna Sagrera, Eva Honings, Gastón La Torre, Marc Soler, Babou Cham, Greta Ruas, Reynaldo Zerpa eta Iván Montardit eta Blanca Portilloren lankidetzaz berezia

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Zuzendaria eta koreografiagilea: **Vero Cendoya** / Musika-zuzendaria: **Adele Madau** / Testuak: **Eduardo Galeano** / Zuzendaritza-laguntzailea: **Gema Díaz** / Jantziak: **Kike Palma & Esther Muñoz** / Administrazioa: **Joan Fabregat** / Ekoizpena: **Lidia Serrat** / Management: **Fani Benages** / Management aholkularitza: **Albert Baldomà**.

La partida eVero Cendoya konpainiak ekoiztu du eta honakoak izan ditu ekoizpen-kide: Fira Tàrrrega, El Graner Koreografia Zentroa, Bartzelona, Cagliariko Carovana SMI elkarte eta ICEC.

Iraupena: **80'**

Informazio gehiago: www.verocendoya.com

[f](#) [t](#) [i](#) [@ciavercendoya](#)

LA INFAMIA

Lydia Cacho

Zuzendaria: **José Martret**

PRODUCCIONES COME Y CALLA



UZTAILAK 21 OSTIRALA

LA CAVA

22:00

2005ean, Lydia Cacho kazetari eta ekintzaile mexikarra bahitu eta torturatu zuen bere herrialdeko poliziak, pederastia-sare bat salatzen zuen liburu bat argitaratzeagatik. Sare horretan enpresaburu eta politikari nabarmenak zeuden inplikatura. Horrek agerian utzi zuen, beste behin ere, Mexikon indarrean jarraitzen duen ustelkeria instituzionala.

Emakume konprometitu eta ausarta horren historia, *Memorias de una Infamia* liburuan jaso zuena, ez da tokikoa, unibertsala baizik, munduan asko direlako mehatxatutako, erasotutako eta beren lanbidean jarduteagatik eraildako kazetariak.

Ikusleak bertan murgiltzen dira antzerki- eta zinema-narratibaren konbinazioari esker, kamera batek protagonistari jarraitzen baitio uneoro. Pantailari esker, Lydia ezagutuko dugu, dokumentalean jasotako proposamen bisual baten bidez eta, aldi berean, bahiketa berreskuratzeko aukera izango dugu, ikuspegi emozional eta psikologiko batetik.

Infamiak aktore onenaren 2023an Max Saria jaso du *ex aequo* Marta Nietorentzat eta Marina Salasentzat, eta finalista izan zen antzerki-ikuskizun onenaren sarietan.

ANTZEZLEA

Marina Salas.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Egilea: **Lydia Cacho** / Moldaketa: **Lydia Cacho eta José Martret** / Zuzendaria: **José Martret** / Espazio eszenikoaren eta jantzien diseinua: **Alessio Meloni** / Soinuaren diseinua: **Sandra Vicente** / Argiztapenaren diseinua: **David Picazo** / Bideo-eszenaren diseinua: **Emilio Valenzuela** / Kamera-operadorea: **Alicia Aguirre Polo** / Zuzendaritza-laguntzailea: **Pedro Ayose** / Ekoizpen-zuzendaritza: **Eva Paniagua** / Ekoizpen-burua: **Juanfran García**.

La infamia Teatro Español eta Producciones Come y callaren koprodukzio bat da.

Iraupena: **75'**

Informazio gehiago: www.franavila.com/la-infamia

@FranAvilaDist @franaviladist

RAIMUNDO EL CANASTERO



UZTAILAK 21 OSTIRALA

KARLOS III PLAZA, ERRIBERRI

24:00



Musika egiten ederki pasatzen duen lagun talde bat da. Haien kontzertuak besta hutsa dira, pozaldi ikaragarria, kezka guztiak kanpoan utzita. Giroak publikoa ere kutsatzen du eta, azkenean, ikusle guztiak ere partaide dira, dela txaloka, dela zalapartaka. Hainbestearino, non, inoiz-edo, 36 lagun ere bildu izan baitira agertoki berean. Jatorrizko kideak, dena den, El Senisa (bateria eta sintetizadoreak), El Caete (kaxoia eta ahotsa), El Panka (baxua), Beltza (saxofoia eta ahotsaz), D' Urruti (gitarra), El Txarro (gitarra eta ahotsa) eta Flako Ray (ahotsa) dira.

Hainbat lagun dituzte bidaide, hala nola pianista bat, txalo-jotzaile talde bat eta haize-segizio bat, hainbat estilotako abestiak ederki biribiltzeko, jai-giro peto-petoko rumba ederki nagusituta.

Iraupena: **90-120'**

@raimundoelcanastero4430

@raimundoelcanastero

TOPAKETAK

"LA INFAMIA"

Daniel Galindo, Machús Osinaga eta Raúl Losáñezekin



UZTAILAK 22 LARUNBATA

ENOZENTRUM, ERRIBERRI

13:00

Erriberriko Antzerki Jaialdiak aurten programatutako artistekin eta arte eszenikoetan espezializatutako prentsan erreferentzia diren kazetariekin jendaurreko hainbat topaketa antolatu ditu beste behin, publikoari irekiak.

Oraingoan, Machús Osinaga (RTVEko kazetaria, Arte Eszenikoetan aditua), Daniel Galindo (La Sala, RNEko saioaren zuzendaria) eta Raúl Losáñez (La Razónko antzerki kritikaria) "La Infamia" plazaratu duen lantaldearekin arituko dira. Ikuskizun hau Teatro Españolaren eta Producciones Come y Callaren arteko ekoizpen bat da.

Lydia Cacho kazetari eta ekintzaile mexikarrak idatzitako lan autobiografikoa da. Bere herrialdeko poliziak bahitu eta torturatu zuen pederastia sare bat salatzen zuen liburu bat argitaratzeagatik. Sare horretan enpresari eta politikari nabarmenek parte hartu zuten.

Horrela, bertaratutako publikoa 2023an aktore onenaren Max Saria (ex aequo Marta Nietorentzat eta Marina Salasentzat) jaso eta antzerki ikuskizun onenaren sarirako finalista izan zen proposamen bat sortzeko prozesura hurbildu ahal izango da.

Artisten eta kazetarien arteko topaketetan aperitibo bat zerbitzatuko da Reyno Gourmeten kortesiaz.

Sarrera librea da lekua bete arte.



LA MEDIDA QUE NOS HA DE DIVIDIR

QABALUM



UZTAILAK 22 LARUNBATA

TEOBALDOEN PLAZA, ERIBERRI

19:30

Bi leku behar dira muga bat egiteko. Zeharkatzen gaituen denborarekin paraleloak diren lerroz beteriko espazioa, eta ez da, ez egiazkoa, ez bakarra, ez gurea. Ez izatekotan, jadanik ezeren ontzi ere ez gara izanen, ezta zatitu behar gaituen neurria ere. Eta hala ere, nola suma genezakeen hori etorkizuna zela?

Dantza garaikideko talde honek bi kide ditu: Lucía Burguete eta Diego Pazó. Gorputza da jardueraren eragile artistikoa, giltzarria. Hezurak, giharrek eta organoak mugimenduaren zerbitzuan. Mugimendua ideien zerbitzuan.

Qabalumek gorputzaren gaineko ikusmina du lanaren oinarri, hots, gorputzak zer kontu dezakeen, zer utz dezakeen erdizka ikusten edo zer iradoki dezakeen, gorputzaren aukera poetiko eta narratiboetatik abiatuta, haren gaitasun tekniko eta adierazkorretan ikertuta, mugimenduak haren edertasuna, haren misterioa, ezagutzera eman dezan.

Konpainia egoiliarra da Nafarroako Gobernu DNA 2021 eta DNA 2022 programan, barnealdeko formatua duen lan honen bidez.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Koreografia eta interpretazioa: **Diego Pazó eta Lucía Burguete** / Jatorrizko musika: **Luisillo Kalandraka**.

La medida que nos ha de dividir Qabalumek ekoiztu du, DNA Jaialdiak, Dantzan Bilaka-k eta Dantza Konpainia nazionalaren 2022ko Egoitzek lagundurik.

Iraupena: **17'**

Informazio gehiago: www.qabalum.com

   @qabalum

MUJER EN CINTA DE CORRER SOBRE FONDO NEGRO

Egilea eta zuzendaria:

Alessandra García

CÍA. ALESSANDRA GARCÍA



UZTAILAK 22 LARUNBATA

LA CAVA

22:00

2022an errebelazio ikuskizunaren MAX saria jaso zuen pieza eszeniko honek auzo xumeko herritarren erradiografia gisa funtzionatzen du. Ehungintzako superproduktioari, kapitalismoari, entretenimenduari, kulturari, hizkuntzei, ezizenari eta zerbitzuen sektoreari buruzko hausnarketa da. Baina, batez ere, istorio hau barrea eta pentsamendua da.

Emakumeak espazioak ematen dizkion elementuekin hitz egiten du: bederatzi metroko soka bat, pilota erraldoi bat, zinta bat, hil ala biziko bataila bat borrokatzeko erabiltzen duen dance-air bat.

Testu-deskribapenak gorputzaren xehetasunei heltzen die. Zezena bere artegian bezala mugitzen den aktore bat, haurra bola-parke batean bezala, oihan tropikalean gerrillari-borroka bezala. Azken batean, hitzaren eta mugimenduaren arteko buruz burukoa, umorera eta pentsamendura eramana.

Hitza dantzatu, keinuarekin kontatu.

Pieza jan ahal izango balitz, Malagaren zaporea luke.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Zuzendaria, testuak eta antzezpena: **Alessandra García** / Zuzendariaren laguntzailea: **Violeta Niebla** / Dramaturgia: **Ramón Gázquez** / Argi-espazioa: **Azael Ferrer** / **Francisco Burgos** / Espazio eszenikoa: **Beatriz Ros** / Jantziak: **Dela-Delos** / Mugimendu-laguntzailea: **María del Mar Suárez** / Soinu-konponketa: **Bass Seismic** / Errejidorea: **Marta Howard** / Ikus-entzunezkoa: **Cruda Films** / Kartelaren irudia: **Hugo Lugo** / Diseinu grafikoa: **Tiquismiquis. club** / Ile-apainketa: **Ana García** / Banaketa: **Muntsa Roca** / Komunikazioa: **Aída Pallarés** / Ekoizpena: **Dos Bengalas**.

Mujer en cinta de correr sobre fondo negro Dos Bengalas-en ekoizpena da.

Iraupena: **60'**

Informazio gehiago: www.alessandragarcia.com

@alessandragarciaenblanco



UZTAILAK 23 IGANDEA

ENOZENTRUM, ERRIBERRI

13:00

TOPAKETAK

ALESSANDRA GARCÍAekin (MUJER EN CINTA DE CORRER SOBRE FONDO NEGRO)

Daniel Galindo, Machús Osinaga eta Raúl Losáñezekin



Saio honetan, Machús Osinaga (RTVEko kazetaria, Arte Eszenikoetan aditua), Daniel Galindo (La Sala, RNEko saioaren zuzendaria) eta Raúl Losáñezekin (La Razóngo antzerki kritikaria) Alessandra García, *Mujer en cinta de correr sobre fondo negro*ren egile eta zuzendariarekin mintzatuko dira.

Alessandra García sortzaile eta performer andaluziarra da, Malagako ESADen testuen interpretazioan lizentziaduna. Bere espezializazio-eremua antzerki parte-hartzailea, harreman-antzerkia eta arte biziak dira. 2023 honetan, bere lana MAX Sariatik asko aintzatetsi da, ikuskizun berri onenaren saria irabazi du, eta errebelazio egilerik onenaren finalista izan da, baita aktore gisa ere, *Mujer en cinta de correr sobre fondo negro* lanarengatik.

Artisten eta kazetarien arteko topaketetan aperitibo bat zerbitzatuko da Reyno Gourmeten kortesiaz.

Sarrera librea da lekua bete arte.



CASA

Zuzendaria eta dramaturgia: **Lucía Miranda**
CROSS BORDER



UZTAILAK 23 IGANDEA

LA CAVA

22:00

Probintzietako arkitekto batek bostehun etxebizitza baino gehiago eraiki zituen, baina bere alabari, oinordetzan, zimendu batzuk emango dizkio. Adin txikikoen egoitza batean bizitza erdia daraman mutil bat, handitan lkeako diseinatzaile izan nahi duena. Venezuelako errefuxiatu gazte bat, Nirvanaren abesti bati esker asiloa lortu zuena. Bere independentziaren alde borrokatzen duen dibertsitate funtzionala duen gizona. HKPeko ekintzaile batekin Parisen maitemintzeko.

Zinema-set bat izan litekeen espazio batean, Casa-ko bost protagonisten istorioak gurutzatu egiten dira, bakar bat osatzeko. Kabaret-erritmoan dauden bi muppetekin, Airbnb-eko gerente batekin eta guztia ikusten duen NASAKo gizon batekin batera.

Casa lan dokumental *verbatim* bat da, eta berrogei pertsona elkarriketatu ziren horretarako. Belaunaldien arteko kontakizuna ere bada, Konstituzioaren 47. artikuluari buruz eta itzulerako bideari buruz galdetzen duena.

Izan ere, galtzen garenean, nekeak garaitzen gaituenean, nola aurkitzen dugu etxera itzultzeko bidea?

AKTOREAK

Belén de Santiago, César Sánchez, Macarena Sanz, Efraín Rodríguez eta Ángel Perabá.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOAK

Zuzendaria eta dramaturgia: **Lucía Miranda** / Argiztapena: **Pedro Yagüe** / Soinu-espazioa: **Nacho Bilbao** / Bideo-eszena: **Javier Burgos** / Jantzigintza eta eszenografia: **Anna Tussell** / Zuzendaritza-laguntzailea: **Román Mendez** / Zuzendaritzako laguntzailea: **Marina Álvarez Moltó** / Ekoizpena: **Helena Ordoñez Bergareche** / Eszenografia eta jantzigintzako laguntzailea: **Fátima Cué** / Dekoratuaren eraikuntza: **Mambo decorados** / Etxeen eraikuntza: **Creators of legend** / Muppets-en eraikuntza: **Merche Cuesta Ramón – La casica Puppets** / Panpinen aholkularia: **Manuel Román** / Banaketa: Susana Rubio (Nuevos Planes).

Casa Cross Border, Teatro de La abadía, Teatro Lliure de Barcelona eta Teatre Dijon Bourgogne (Centre Dramatique National) elkartu dituen koprodukzio bat da.

Iraupena: **120'** (100' obrakoak eta 20' publikoarekin elkartzekoak).

Informazio gehiago: www.thecrossborderproject.com

   @crossborderproject



UZTAILAK 24, 25, 26, 27 eta 28

ERRIBERRIKO KULTUR ETXEA

11:00 – 14:00

TAILERRAK

DESAPRENDER A VIVIR. APRENDER A CONTAR.

HISTORIA, OBRA, PERFORMANCE
BERRIEN TAILERRA/HAZITEGIA

María Velascoekin



"Hamar bat arimarentzat idazten dut, agian inoiz ikusiko ez ditudanak, baina ikusi gabe maite ditudanak". Stendhalen aipamen hau María Velascoren lana zuzentzen duen horietako bat da. María Velasco Ikus-entzunezko Komunikazioan doktorea da Madrilgo Complutense Unibertsitatean, antzerkigilea Arte Dramatikoko Errege Eskolan eta masterra Praktika Eszenikoan eta Ikusizko Kulturean.

Velasco nahiago du antzerkia metafora ikusgarri gisa definitu, gatazka gisa baino. "Nolanahi ere, bestearekin hondamenezko elkartzeaz edo hondamenezko galeraz hitz egingo nuke. Autofikzioaren edo dramaturgia intimoen generoagatik ezaguna bada ere, mota guztietako lanak idatzi ditu (haurrentzakoak, nerabeentzako antzerkia, klasikoaren egokitzapenak...), baina, bere ustez, garrantzitsuena beti izan da proiektuarekin lotura pertsonala aurkitzea. Antzerki politikoa gustatzen zait, arrisku formala (Nouvelle Vagueko maitale naizen aldetik) eta gure demokrazia ankilosatuaren ohorea iraintzea. Uste dut, pelikularen une honetan, umorea beltza dena bakarrik dela posible".

IZEN-EMATEA

Mintegi honek 15 plaza eskaintzen ditu antzezle profesional, zuzendari eta antzerkigileentzat. Izena eman ahal izango da plazak bete arte.

Horretarako, bidali e-posta bat programasydifusion@navarra.es helbidera, **izena, bi abizen, helbidea, NAN, telefono mugikorra**, harremanetarako **helbide elektronikoa** eta matrikularen zenbatekoa ordaindu izanaren **egiaztagiria** adieraziz.

Matrikula ordaindu dutenen artean hurrenkera kronologiko zorrotzean emango da izena mintegian.

Ordainketa, 40 eurokoa, banku-transferentzia bidez egin beharko da ES38 2100 3693 2122 00547110 kontura. Kontu horren titularra Kultura Zuzendaritza Nagusia da, eta kontzeptuan **DESAPRENDER A VIVIR. APRENDER A CONTAR** tailerreko matrikula eta ikastaroa egingo duenaren **izen-abizenak** adierazi beharko dira.

Prezioak klaseak bakarrik hartzen ditu. Erriberriko joan-etorria tailerrean parte hartzen duten pertsonen kontura izango da. Bestalde, matrikularen prezioak ere lon iraizozko *Simulacro* ikuskizunerako sarrera hartzen du.

Norbaitek izen-ematea ordaindu badu eta plazak bete badira, matrikularen zenbatekoa itzuliko zaio.



TAILERRA: AUTOFICCIÓN UTÓPICA 8 - 18 urtekoentzat

Carla Rovirarekin



UZTAILAK 24, 25, 26, 27 ETA 28

**FRANTZISKOTARREN ESKOLA ZAHARRAK,
ERRIBERRI**

11:00 – 14:00

Jaialdiaren edizio honetan publiko gazteenak aktiboki parte hartzeko gune bat irekiko da. Horrela, Carla Rovirak 8 eta 18 urte bitarteko ikasleentzako tailer bat proposatzen du.

Etorkizuna konkistatu beharreko espazio bihurtu da. Dagoeneko ezin dugu amets egin agertoki posible bizigarriekin, baina itxaropena eskubide besterenezina da. Batez ere, bizitza osoa aurretik baduzu. Horregatik, antzerkia bera espazio utopikoa denez, tailer honek etorkizun utopiko posibleei buruzko autofikzio-ariketa bat proposatzen die parte-hartzaileei. Pertsonaien asmakuntzatik hasi eta etorri beharreko paisaien sorkuntzaraino, parte-hartzaileek utopia helburu duen gailu eszeniko bat sortuko dute.

Rovira programazioan izango da [Èxit] Through the gift shop lanarekin. Institut del Teatre-n Interpretazioan graduatua, bere lanen artean daude Most of all, you 've got to hide it from the chicks (Premi FAD Sebastià Gasch-en Aplaudent a la Creació Emergent sariaren irabazlea 2016an), Aüc, So de les Esquerdes (Les Impuxibles-ekin) MÀTRIA (Núvol aldizkariaren L' Apuntador sariaren irabazle 2017an), Calla, Hamlet, calla (Temporada Alta, 2018) edo Jordi Duranen La Defensa Alien (2019)

IZEN-EMATEA

Mintegi honek 15 plaza eskaintzen ditu 8-18 urte bitarteko gazteentzat. Izena eman ahal izango da plazak bete arte.

Horretarako, bidali e-posta bat **programasydifusion@navarra.es** helbidera, **izena, bi abizen, helbidea, NAN, telefono mugikorra**, harremanetarako **helbide elektronikoa** eta matrikularen zenbatekoa ordaindu izanaren **egiaztagiria** adieraziz.

Matrikula ordaindu dutenen artean hurrenkera kronologiko zorrotzean emango da izena mintegian.

Ordainketa, 15 eurokoa, banku-transferentzia bidez egin beharko da ES38 2100 3693 2122 00547110 kontura. Kontu horren titularra Kultura Zuzendaritza Nagusia da, eta kontzeptuan **AUTOFIKZIO UTOPIKOA tailerreko matrikula** eta ikastaroa egingo duenaren **izen-abizenak** adierazi beharko dira.

Prezioak klaseak bakarrik hartzen ditu. Erriberriko joan-etorria tailerrean parte hartzen duten pertsonen kontura izango das.

Norbaitek izen-ematea ordaindu badu eta plazak bete badira, matrikularen zenbatekoa itzuliko zaio.

[ÈXIT] THROUGH THE GIFT SHOP

CARLA ROVIRA



UZTAILAK 26 eta 27 ASTEAZKENA ETA OSTEKUNA

CENTRO CULTURAL TAFALLA KULTURGUNEA

19:30

Haurdunaldiaren seigarren hilabetea, ekografia egin, eta sabelean hazten ari zaion umekiak garunean malformazio bat duela diagnostikatu diote X-i; eta lau pronostiko eman dira: bat, aldekoa, eta beste hirurak, berriz, umekiaren heriotza edo izugarritzko sufrimendua.

Ikuskizunean, diagnostikoaren egunaz geroztiko haurdunaldiko hiru hilabeteak jorratzen dira, huraxe bukatzen den arte: zer gertatzen zaion gorputzari, zer galdera egiten dizkiozun zeure buruari egoera hori bizi duzunean, aurre egiten dizuten munstroak, eta nola bizi den hori kolektiboki. Nola egiten diegu aurre narratiba nagusiaren ereduarekin bat ez datozen esperientziei?

Autofikzio maskaratua da, hirugarren pertsona kontatua; dispositibo eszenikoa erakusketa-piezen bidez pasatzen da eta, hain zuzen ere, elkarreragin horren bitartez garatzen da lana

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Dramaturgia eta interpretazioa: **Carla Rovira Pitarch** / Argi-diseinua nahiz diseinu eszenikoa eta grafikoa: **Manoly Rubio García** / Ekoizpena: **Aina Bujosa Díaz** / Ikus-entzunezko diseinua: **Erol Ileri Llordella** / Soinu-diseinua eta musika-konposizioa: **John Christian Cárdenas eta Erol Ileri Llordella** / Laguntza muntaketan: **Claudio Duarte** / Sabel moldeak: **Elena Villalba Camiño** / Arotz-lana: **Ferro Calent Forja** / Erakusketako testuen zuzenketa: **Gema Moraleda**.

Exit through the gift shop lana batera ekoiztu dute Carla Rovirak, Terrassa Arts Escèniques-ek eta Firat Tàrraga-k.

Iraupena: **70'**

Edukiera murriztua: **60 pertsona**

Informazio gehiago: www.carlarovira.cat

[f](#) [t](#) [i](#) [@](#) [@lacarlarovira](#)

PERSÉFONE

Egilea eta zuzendaria: **Miguel Goikoetxandia**
ILUNA PRODUCCIONES



UZTAILAK 26 ASTEAZKENA

LA CAVA

22:00

Aintzinako grezieraz, Persefonek "heriotza daramana" esan nahi du. Azpimunduaren erregina da, eta sekretu hilen zaindaria. Persefonek bizimodu lasaia zeraman, Hadesek bahitu zuen arte eta haraino eraman zuen arte.

Gure Persefone Silvia da, bere aitaren abusu iraunkorrek eta amaren isiltasuna pairatu dituen emakumea.

Silvia itxuraz eroso eta zoriontsu bizi da, familia-ingurune egonkor batean, senar eta alaba batekin. Harik eta egun batean bere bizitza dinamitatuko duen zerbaite gertatzen den arte, berriz ere azpimundura eramanez.

Infernura jaiste bat da, indarkeriaz, gehiegikeriaz, justiziaz eta mendekuaz beteriko drama ilun batean.

AKTOREAK

Marta Juárez, Ana Berrade, David Larrea eta Miguel Goikoetxandia.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Egilea eta zuzendaria: **Miguel Goikoetxandia** / Argiztapen eta eszenografiako diseinua: **Ion Martinkorena** / Koreografiak: **Arantxa Villanueva** / Jantzigintza eta tresneria: **Ion Martinkorena, Iluna Producciones.**

Perséfone Iluna Producciones-en ekoizpena da.
Iraupena: **70'**

Informazio gehiago: www.ilunaproducciones.es

SIMULACRO

Egilea eta zuzendaria: **Ion Iraizoz**
CIA. ION IRAIZOZ



UZTAILAK 27 OSTEGUNA

LA CAVA

22:00

Fikzioak gauzak edertzen ditu, telesail edo sare sozial batetik hasi eta erlijio edo utopia politikoetaraino. Fikzio orok epifania baten itxaropena ezkutatzeko du, ezusteko zerbaitena, aldaketaren batena; horregatik, eguneroko fikzio-dosi txiki bat behar dugu.

Simulakroan, bi pertsonak beren fikzioa sortzen dute, beren nahiei erantzungo diena eta bizitza modu kontrolatuan gertatzen den simulakroen mundu txikian kokatzen dena, beren beharren neurria egindako eskala batean.

Komedia supererrealista honetan, bi pertsonak itxuraz egunerokoak diren egoerak simulatzen dituzte.

AKTOREAK

Ion Iraizoz eta **Gloria March**.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Dramaturgia: **Ion Iraizoz**, **Gloria March** eta **Albert Pérez**en laguntzarekin / Zuzendaria: **Ion Iraizoz** / Kanpoko begirada: **Albert Pérez** / Espazio eszenikoa: **Los Reyes del Mambo** / Soinuaren diseinua: **Adolfo García** / Zuzendariaren laguntzailea: **David Mallols** / Ekoizpena: **La Caja Flotante**.

Simulacro Ion Iraiozen sorkuntza da.

Iraupena: **75'**

Informazio gehiago: www.ciaioniraizoz.com

[f](#) [t](#) [i](#) @ion.iraizoz

HAZ QUE PASE

PROFESIONAL ETA EZ-PROFESIONALENTZAKO SORMEN TAILERRA

TEATRO EN VILOrekin



UZTAILAK 28 16:00 – 20:30
UZTAILAK 29 y 30 09:30 – 14:00

ERRIBERRIKO KULTUR ETXEA

Andrea Jiménezek, Teatro En Vilo konpainia multsarituaren zuzendarikideak, proposamen eszeniko propio baterantz lehen urratsak ematea proposatzen du tailer honetan. Lau egunetan zehar, parte-hartzaileek, bakoitzak bere espezialitate-arlotik, sorkuntza eszenikorako askatasun-leku bat eta beren nortasun sortzailea garatzeko bultzada bat aurkitzea izango dira helburu nagusiak.

Horretarako, beren ideia, jolas eta ariketa erabilgarriei forma ematen hasteko, beren eskura jarriko dituzte sustatzaileak talde zein banakako sormenari ekiteko, inprobisazioak eta idazketa-ariketak garatuko dituzte, material eszenikoa eta ekintza dramatikoak sortzeko eta antolatzeko tresna dramatikoak partekatuko dituzte, eta espazioaren eta denboraren antolaketarekin zerikusia duten oinarri eszenikoak aztertuko dituzte.

Tailerraren amaieran, beste sortzaile eta sortzaile batzuekin jolasteko eta elkartzeko testuinguru horretan, parte-hartzaile bakoitzak bere baliabideak eta ideiak jarri ahal izango ditu garatzeko interesa duen lan baten hasieran (testua, eszena, mugimenduaren konposizioa, etab.).

IZEN-EMATEA

Mintegi honek 15 plaza eskaintzen ditu antzezle profesional, zuzendari eta antzerkigileentzat. Izena eman ahal izango da plazak bete arte.

Horretarako, bidali e-posta bat programasydifusion@navarra.es helbidera, **izena, bi abizen, helbidea, NAN, telefono mugikorra**, harremanetarako **helbide elektronikoa** eta matrikularen zenbatekoa ordaindu izanaren **egiaztagiria** adieraziz.

Matrikula ordaindu dutenen artean hurrenkera kronologiko zorrotzean emango da izena mintegian.

Ordainketa, 40 eurokoa, banku-transferentzia bidez egin beharko da ES38 2100 3693 2122 00547110 kontura. Kontu horren titularrak Kultura Zuzendaritza Nagusia da, eta kontzeptuan **HAZ QUE PASE tailerreko matrikula** eta ikastaroa egingo duenaren **izen-abizenak** adierazi beharko dira.

Prezioak klaseak bakarrik hartzen ditu. Erriberriko joan-etorria mintegian parte hartzen duten pertsonen kontura izango da. Bestalde, matrikularen prezioak ere tailerreko zuzendarien Man up ikuskizunerako sarrera hartzen du.

Norbaitek izen-ematea ordaindu badu eta plazak bete badira, matrikularen zenbatekoa itzuliko zaio.

TRAPU ZIKINAK

Lucía Ezker
LORE MORE



UZTAILAK 28 OSTIRALA

**ERRIBERRIKO ERRET JAUREGIA,
SARRERAKO PATIOA**

19:30

"Trapu zikinak etxean garbitzen dira" esaten bada ere, herri garbilekuek, egun mutu dauden herritarrek, beste errealitate posible bat agerian uzten dute: trapuok kalean garbitzen zirela, alegia, bizilagun, senide eta lagunekin batera.

Intimitatearen ideia begi berriz aztertu dezakegu iraganeko ur horietan murgiltzen baditugu eskuak

Nola garbitzen dira lotsak utzitako orbanak? Eta indarkeriarenak? Zeri esaten diogu "zikin"? Zertaz hitz egin daiteke?

Gerraosteak utzitako pobrezia, adiskidetasuna, patriaren bidegabekeria, maitasuna, lana eta etorkizunerako desirak gorpuztuko dira garbiketan diharduten emakume saldoan. Hotza eta zikinkeria izango dituzte bidelagun; azken horiek ere badute zer esan bizi garen munduaz...

AKTOREAK

Lara Villanueva, Maialen Díaz Urriza eta Mikel Urroz Zabalza.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Egilea: **Lucía Ezker** / Zuzendaria: **Lore More** / Soinu-espazioa: **Harkaitz Martínez de San Vicente Urriza** / Jantziak: **Iona Lakunza** / Eszenografia: **Orekari Estudio** / Argiak: **Andrés Dwyer** eta **Fermín Izko**.

Trapu zikinak Lore More-ren ekoizpena da.

Iraupena: **75'**

Informazio gehiago: www.carlarovira.cat

[f](#) [t](#) [i](#) [@](#) [@lacarlarovira](#)

SOLO ME ACUERDO DE ESO

Egilea eta zuzendaria: **Johan Velandia**
LA CONGREGACIÓN TEATRO



UZTAILAK 28 OSTIRALA

LA CAVA

22:00

Ikasle gazte bat, goizaldean eta oroimenik gabe, Bogota erdialdeko kale batean agertzen da, bi usoren konpainia bakarrarekin. Haiekin batera, hara nola iritsi den berreraikitzen saiatzen da, galaz jantzita eta maite dituen pertsonarik gabe.

Solo me acuerdo de eso Carlos José Reyesek, José Sanchis Sinisterrak eta Carolina Vivasek asmatutako *Cicatrizar – España/Colombia* dramaturgia proiektuaren zati gisa sortu zen. Historia hurbileko zauri ireki bat hartzen du abiapuntutzat, sendatzen saiatzeko eta bere eskuetatik graduatu-diploma kendu zitzaion gazte baten oroimena ohoratzea, nori galdetu zioten:

Zein da zure bizi-proiektua?

Bizitzea.

AKTOREAK

Juan Pablo Barragán, María Fernanda Fabre, Emmanuel Restrepo, Cristián Ruiz eta **Johan Velandia**.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Egilea eta zuzendaria: **Johan Velandia** / Zuzendari-laguntzailea: **Sergio Castillo** / Koreografia: **Aníbal Quiceno** Teknikari-burua: **Maicol Medina** / Jantziak: **Ana Velandia** / Argiztapenaren diseinua: **Humberto Hernández** / Arte zuzendaritza: **Johan Velandia** / Ekoizpena: **Sergio Castillo**.

Solo me acuerdo de eso, La Congregación Teatrotoren eta Teatro Mayor Julio Mario Santo Domingoren arteko ekoizpena da.

Iraupena: **75'**

   @lacongregacionteatro

Aurkezpenaren laguntzailea:



SEMPIERTOS

Kepa Errasti eta Telmo Irureta

Zuzendaria: **Mireia Gabilondo**

TANTTAKA TEATROA



UZTAILAK 29 LARUNBATA

CENTRO CULTURAL TAFALLA KULTURGUNEA

19:30



Anaren bihotza logela huts bat omen da. Nicok berea tatuatu egin nahi du. Igogailu batean daude harrapatuta eta ezezagun izatetik lagun izatera pasako dira.

Beno, duela hiru urte gertatu zen hori, baina iraganera bidaiatuz, orainaldian biziko dugu kontatzera datozena; maitasuna, sexua, bakardadea eta jendearen aurreiritziak aztergai.

Garun-paralisia duen kazetariak eta kontraesantetan erdi itota dabilen goxoki saltzaileak, beren bizipen afektibo sexualak azalduko dituzte inolako konplexurik gabe, gutako bakoitzak, norbere paraliarekin, beldur, amets eta ilusio ezberdinak ditugula erakusteko.

Bi lagunak istorioa da, hazkuntza pertsonaleko istorioa, umorez eta minez tindatuta.

Sempiertos, antzerki irigarriko ikuskizuna, ekoizpen-lan onenaren saria izan da 2023ko Max Sariatetan.

AKTOREAK

Miren Arrieta eta Telmo Irureta.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Egilea: **Kepa Errasti eta Telmo Irureta** / Zuzendaria: **Mireia Gabilondo** / Soinu-espazioa: **Fernando Bernués** / Argi-diseinua: **Xabier Lozano** / Jantziak: **Ana Turrillas** / Argazkia eta diseinu grafikoa: **Mikel Martínez - Dock Studio** / Koordinazio teknikoa: **Acrónica Producciones** / Ekoizpen exekutiboa: **Ane Antoñanzas** / Administrazioa: **Maite Gorrotxategi** / Ekoizpena: **Paola Eguibar** eta **Nagore Plazaola** / Banaketa: **Portal 71**.

Sempiertos Tanttaka Teatroaren ekoizpena da.

Iraupena: **70'**

Edukiera murriztua: **60 pertsona**

Informazio gehiago: **www.tanttaka.eus**

MAN UP

Zuzendaritza eta dramaturgia: **Andrea Jiménez y Noemi Rodríguez**
TEATRO EN VILO



UZTAILAK 29 LARUNBATA

LA CAVA

22:00



Ikuskizun berri honekin, *Teatro En Vilo*-ko zuzendariak maskulinitatearen kontakizun tradizionalari eta haren erreferenteei mozorroa kentzeko erronka dakarte, ironiaren, irreberentziaren eta umore zentzugabearen bidez.

Kode maskulino tradizionalak zaharkituta geratu diren eta berriak oraindik lantzeko dauden une honetan, *Man up* antzezlanak espazio berri bat aurkeztu nahi du, non zalantzan jarri gizon izateak zer esan nahi duen eta aldi berean gizon izateko modu berriak irudikatzen leku bat izan nahi du.

Eszenan, sei aktorek maskulinitatearen inauteri handi bat antzetzeari ekingo diote, gizontasunaren estandarak arautzen dituzten erreferente kulturalak deseraikitzen, berreraikitzen edo suntsitzen jolastuz, eta, aldi berean, munduan duten lekuari eta beren nortasunari buruz hausnartuz.

AKTOREAK

Javier Carramiñana, Pablo Gallego Boutou, Blanca Solé, Alberto Jo Lee, Juan Paños, Noemi Rodríguez eta Baldo Ruiz.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Zuzendaritza eta dramaturgia: **Andrea Jiménez eta Noemi Rodríguez** / Koreografia: **Amaya Galeote** / Zuzendariaren laguntzailea: **Juanma Romero** / Eszenografia: **Mireia Vila Soriano** / Argiztapena: **Miguel Ruz** / Jantziak: **Yaiza Pinillos** / Jantzi-laguntzailea: **Beatriz Suárez** / Kartelaren diseinua: **Javier Jaén** / Argazkigintza: **Marcos Gpunto** / Eszenografia-errealizazioak: **Mambo Decorados** / Jantzigintza: **Sastrería Gabriel Besa** / Tresneria: **Hijos de Jesús Mateos** / Off ahotsak: Antonio Camina, Ariana Cárdenas, Candela Sanz, Carlos García-Esquinas, Carmen Gómez Menor, César Rivas, Eva Chamorro, Fanny Hernández, Fátima Baeza, Faustino Habas Calero, Flavia Turci, Gaëlle Audouard, Gregor Acuña, Inés Ruiz, Inma Cuevas, Isabel Vallespin, Javier Molleda, Javier Paisano, Jordi París, José Ramón Arredondo, Joseba Maiza, Juliana Ascúa, Justo Ruiz, Lise Belperron, Lucía Casado, Luis Maeso, Manuela Sanz, María Díaz, María Fente, María Folguera, María Pastor, María Perona, Marián Bañobre, Marta Alonso, Mina Grilli, Mireia Petitpierre, Nerea Pérez de las Heras, Orion Bow, Pablo Alamá, Juan Paños Gómez, Rocio Sanz, Tania Galán / Ekoizpena: **Centro Dramático Nacional** / Biran ekoiztea: **Barco Pirata Producciones teatrales** / Banaketa: **Proversus.**

Man up Teatro en Viloren eta Centro Dramático Nacionalaren arteko ekoizpena da.

Iraupena: **120'**

Informazio gehiago: www.teatroenvilo.com / www.barcopirata.org

[f](#) [t](#) [i](#) @teatroenvilo @barcopirata @proversusisabellan



UZTAILAK 30 IGANDEA

ENOZENTRUM, ERRIBERRI

12:00

NAFAR KONPAINIEKIN TOPAKETA

JASANGARRITASUNA ARTE ESZENIKOETAN:
ETXEKO KONPONBIDEETARAKO
ELKARRIZKETA IREKIA

Jemima Canorekin



Arte eszenikoen gaur eguneko jasangarritasunari buruzko elkarrizketa gidatua. Helburua da zehaztea zer aldaketa erreal egin daitezkeen egitura kultural txikietatik (konpainiak, artistak eta erakunde kulturalak), ingurumen-inpaktua mugatzeko. Kostu txikiko adibideak, tresnak eta soluzioak ikusiko dira. Halaber, Europar Batasunak arlo horretan zer eskatzen duen eta hainbat deialdirekin zer lotura duen azalduko da.

Jemina Cano ekoizle eszenikoa eta dantzan espezializatutako kultur kudeatzailea da. DOOS kolektiboaren parte da, eta bertatik audientzien, generoaren eta Europako proiektuen arloan lan egiten du. 2018tik, eta Pyrenart proiektu europarraren mintegiak koordinatzeari esker, ekofriendly begirada zabaltzen dio ekoizpen eszenikoari.

Artisten eta profesionalen arteko topaketetan aperitibo bat zerbitzatuko da Reyno Gourmeten kortesiaz.

Sarrera librea da lekua bete arte..



AL OTRO LADO

Sorkuntza kolektiboa

Zuzendaria: **Miguel Muñoz**

ZANGUANGO TEATRO



UZTAILAK 30 IGANDEA

TEOBALDOEN PLAZA, ERIBERRI

19:30



Oihal eramangarri batek istorio dibertigarriak azalduko dizkigu, guztiak ere gure karriketako eguneroko bizitzan ezkutatuak.

Al otro lado, kaleko ikuskizun onenaren Maz Saria izan zen 202an. Dispositibo soila baina agortezina proposatzen digu, paseatzailea harrapatzen duena, eta argi eta era ludikoan erretratatzeko du, hura istorio erreal eta irudikatu baten nahi gabeko interprete bihurtuta, ikuskizunak aurrera egin ahala sortzen joaten den istorioa kontatzeko. Herriarren bizitzaren ikuspegi bat da, umoretik eta ironiatik begiratuta, Zanguango Teatro-k ohi duenez

AKTOREAK

Txubio Fernández eta **Na Gomes**.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Egilea: **Txubio Fernández**, **Miguel Garcés** eta **Miguel Muñoz** / Zuzendaria: **Miguel Muñoz** / Eszenografia: **Carlos Pérez Donado** / Jantziak: **Esther Villar**.

Al otro lado es Zanguango Teatro-ren ekoizpena da.

Iraupena: **60'**

Informazio gehiago: www.czanguangoteatro.com

@ZanguangoTeatroPro

@_Zanguango_

@TeatroZanguango

EL MAR. VISIÓN DE UNOS NIÑOS QUE NO LO HAN VISTO NUNCA

Egilea eta zuzendaria: **Xavier Bobés y Alberto Conejero**
XABIER BOBÉS ETA ALBERTO CONEJERO



UZTAILAK 30 IGANDEA

LA CAVA

22:00

Hauxe da bete ezin izan zen promesa baten istorioa, Antoni Benaiges maisuak landa-eskola bateko bere ikasleei egin ziena. Promesa 1936ko neguko egun batean egin zien. Itsasoa agindu zien.

1934an, gaztea Bañuelos de Bureba-ra iritsi zen, Burgos probintziako herri txiki batera.

Handik gutxira, gramofono eta oinarritzko inprimategi bat bere poltsikotik ordaintzen ditu. Lehen ikasturte horretatik aurrera, ikasleek beren emozioak, ametsak eta pentsamenduak argitaratzen dituzte.

1936ko urtarilean, *El mar. Visión de unos niños que no lo han visto nunca* argitaratzen dute. Liburutxoak eskola-umeen esamoldeak biltzen ditu, itsasoa nola irudikatzen duten, haien beldurrak eta ametsak. Batek ere ez du itsasoa ikusi. Irakasleak uda horretan bertan Kataluniara eramango zituela hitzematen die. 1936ko uztailaren 25ean Benaiges fusilatu zuten. Maisuaren hitzmatea ezin izango da inoiz gauzatu.

Objektuek, olerkiak eta dokumentu-materialak hierarkiarik gabe bat egiten duten gailua proposatzen du pieza honek.

AKTOREAK

Xavier Bobés eta **Sergi Torrecilla**.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Dramaturgia: **Alberto Conejero**, Bañuelos de Burebako eskolako Antoni Benaiges irakaslearen testuetan oinarrituta, Marina Garcés eta Alberto Conejero / Espazio eszenikoa: **Pep Aymerich** / Ikus-entzunezkoa: **Albert Coma** / Jatorrizko musika: **Antonio José Martínez Palacios** (1902-1936), José Luis Bernardo de Quirós eta Elisa Rapado Jambrinaren grabazioetan / Soinu-espazioa: **Julià Carboneras** / Argiztapena: **Jou Serra eta Mario Andrés Gómez** / Arte-diseinua: **Anna Auquer** / Pintura: **La Beren** / Dokumentu-aholkularitza eta argazkiak: **Sergi Bernal** / Testigantzak: Alberto Bougleux eta Sergi Bernalen *El retratista* dokumentala / Eòlia eskolako praktiketako ikaslea: **Natalia Jiménez** / Ekoizpen exekutiboa: **Imma Bové** / Testuak katalanera itzulpena: **Martí Sales**.

El mar. Visión de unos niños que no lo han visto nunca Teatre Nacional de Catalunya-ren eta Xavier Bobés-en arteko produkzioa da, ICEC, Institut Català de les Empreses Culturals, L'Animal a l'Esquena eta Festival FITT de Tarragona-ren laguntzarekin.

Iraupena: **65'**

EGONALDIAK: LA MONTAÑA MENDIA

MIKELE URROZ ZABALZA eta LUCÍA EZKER REKALDE



ABUZTUAK 1 ASTEARTEA / 20:00

TAFALLA

ABUZTUAK 3 OSTEGUNA / 20:00

ERRIBERRI

Emakume batek bere zortzimilakoari egiten dio aurre. Bere mamuekin topo egitera joateko espedizio zirkularra da. Mendi oro talka batetik sortzen da, elkarrengana gero eta gehiago hurbiltzen diren bi plakaren talka bortitz eta geldo batetik. Biek ere bidean topatzen duten gauza oro txikitzen dute gailurra eratzen duten arte. Bi indarren arteko topaketa katartikoa da. Maitasun baten antzekoa den zerbait.

Mendia ez daiteke ekarri agertokira, baina hemen badira hari dei egiten dioten irudi batzuk: K2ren ulua. George Harrison eta haren *My sweet Lord*. Aitaren mendiko diapositibak. Emakume mendizale bat izotza bailitzan krak egiten. Herio ageri da *A message to you Rudy* dantzatzeko, whisky izozdunarekin *oraindik ez zaitut ukitu* esaten digun bitartean. Mugimendu-sentsore bat, zuzenean eta harearekin geruza geologikoak eta mendiak sortzeko. Neska gazte eskalatzaile bat bideak irekitzen munduan zehar. Beste garai bateko sekretuak kontatzen dizkigun gizon alpinista izoztu bat. Maitasun aitopen bat. Mendi bat solasean. *Himalaiatik postala*.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Sorkuntza eta ikerketa: **Mikele Urroz Zabalza** eta **Lucía Ezker Rekalde Iñigo Rodríguez-Clarorekin** elkarlanean / Interpreteta: **Mikele Urroz Zabalza** / Eszena-gunea: **Orekari estudio** / Soinu-espazioa: **Jose Pablo Polo** / Ekoizpena: **Lucía Ezker** / Teknikaria: **Fermin Izko**.

La montaña mendia Mikele Urroz Zabalzaren eta Lucía Ezker Rekalderen ekoizpena da.

OLVIDO FLORES. LAS MARAVILLAS DE JÚPITER

ESTEFANÍA
DE PAZ ASÍN



ABUZTUAK 2 ASTEAZKENA / 19:00
UDAL APARKALEKUA, SAN MARTIN UNX

ABUZTUAK 3 OSTEGUNA / 19:00
UDALETXE PLAZA, BEIRE

ABUZTUAK 4 OSTIRALA / 19:00
KONDEAREN PARKEA, TAFALLA

ABUZTUAK 5 LARUNBATA / 19:00
GURPILAREN PLAZA, ERRIBERRI

1936ko uztailaren 18an, gerra zibila eragin zuen Errepublikaren aurkako altxamendu kolpistarekin batera, arrastorik utzi gabe desagertu egin zen Lodosara iritsia zen Circo Anastasiniko 50 artistaz osaturiko troupe hura. Batzuk fusilatu omen zituzten, eta gainerakoak, berriz, tropa entretenitzera behartu omen zituzten.

Objektuen hizkuntzaren bidez, Olvido Flores narratzaileak edertasun-istorio mikatza kontatzen du, poesia, zirkua eta gerra, hogeitaz inguru barne hartzeko egokitua dagoen karabana batean. Memoriari egin nahi dio gorazarre, bai eta inork loreak eraman ez zizkien pertsona horiei ere.

Herri bakoitzean lau emanaldi izango dira: 19:00, 19:45, 20:30 eta 21:15. Emanaldi bakoitza gehienez 27 lagunentzat izango da.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Sorkuntza eta interpretazioa: **Estefanía de Paz Asín.**

Olvido Flores. Las maravillas de Júpiter Estefanía de Paz Asínen ekoizpena da
Iraupena: 20'

Informazio gehiago: www.estefaniadepazasin.com

   @estefaniadepazasin

EGONALDIK: TORCIDAS

LAS NENAS THEATRE



ABUZTUAK 2 ASTEAZKENA / 20:00

BEIRE

ABUZTUAK 4 OSTIRALA / 20:00

ERRIBERRI

Torcidas-ek antzerki-ikerketarako egoitza bat planteatu du, gorputzen kontrako indarkeria eta irudiaren diktadura aztertzeko.

Konpainiako bi kideek eragozpen fisikoak izan dituzte beren bizitzetan. Horren ondorioz, ebakuntzak egin dizkiete eta tresna ortopedikoak ere erabili dituzte "gaizki zegoena" zuzentzeko.

Torcidas metafora bat da: batetik, konpainiako kideek aurre egin beharreko zailtasun fisikoak irudikatzen ditu eta, bestetik, pertsonen gainean inposatzen diren espektatibak eta presio sozialak, gizartean ezarrita dauden edertasun- eta perfekzio-estandarretara egokitzeko.

Aukeratzen dut naizena edo hark aukeratzen nau? Arlo eszenikoaren eta ikerketaren bidez, proiektuak estereotipo horiek zalantzan jartzea eta haiei aurre egitea du xede, dibertsitatearen onarpena eta balorazioa sustatuta. Arakatuko da nola eragiten dioten zailtasun horiek auto-estimuari eta nola topatu lekua mundu honetan, hots, itxura hutsa maiz benazkotasunaren gainetik lehenesten duen munduan.

Dokumentazioa, esperientzia pertsonalak, elkarrizketak eta ikerketa-tailerrak bilduz eta uztartuz, prozesuaren gaineko dokumentala prestatuko dute egoitzaren azken egunean emateko.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Sortzaileak eta zuzendariak: **Ane Sagüés eta Cristina Tomás** / Ikus-entzunezko materialaren grabazioa eta edizioa: **Jon Muñoz** / Kanpo-gainbegiralea: **Maia Ansa eta Adriana Cerdán**.

Torcidas Las Nenas Theatre-ren ekoizpena da.

ARTXIPIELAGO

Koreografia eta zuzendaria: **Maitane Azpiroz**
LA TRAPECIONISTA



ABUZTUAK 2 ASTEAZKENA

CENTRO CULTURAL TAFALLA KULTURGUNEA
20:00



Lurraren pisua hauts bihurtua, hondarraren arintasuna esekiduran, oinez etengabe aritzea, etengabe bilatzea...

Zer uzten du gizakiak bere urratsen atzetik?

Nola har daiteke perspektiba altueretatik?

Zer da nahitaezkoa?

Nola egin ikusgai funtsezkoa dena?

Protagonistak bakarkako bidaia bat egingo du, txelo baten musikaren laguntzarekin, eta esekidura uneak, aire-dantza uneak, eta berarekin batera eraldatzen den paisaia bat marraztuko ditu.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Egilea, koreografia eta eszenaratzea: **Maitane Azpiroz** / Laguntzailea dramaturgia eta bilaketan: **Inés Aubert** / Sorkuntza teknikoa: **Guillaume Desnoullet** / Teknikari orokorra eta argi-diseinua: **David Lainez Aguirre** / Zuhaitz teknikaria: **Juanjo Altuna** / Jantziak: **Aiora Ganuza** / Interpretazioa eta kolaborazioa: **Teresa Magallón Cortes** / Musika: **Alejandro Saul Martínez** eta **Iván Casado**.

Artxipielago La Trapecionista-ren ekoizpena da.

Iraupena: **50'**

Informazio gehiago: www.latrapecionista.com

@latrapecionista

@latrapecionista5583

LA MALPAGÁ

Dramaturgia eta zuzendaria: **Ana Maestrojuán**
PRODUCCIONES MAESTRAS



ABUZTUAK 3 OSTEGUNA

LA CAVA

22:00

L'Arcadian gaude, Bartzelonako cabaret-klub batean, 90eko hamarkadako lehen egunetan. Olinpiaden eta Sevillako expoaren aurreko poza nabari da giroan. Miragarria eta itxaropen ekonomikoz betea den hamarkada baten zain gaude.

Gaur, 1990eko urtarilaren 8an, *Clara in the Dark* vedettearen zain gaude *La Malpagá* show berriaren estreinaldirako. Bere ahotsaren eta abestien bidez, bere bizitzaren eta nahien, oroitzapenen eta bere lagun Jaime, Jaime Gil de Biedmarenganako baldintzarik gabeko debozioaren partaide izango gara. Beti bere piano-jole leial eta adiskidearekin, Marie Brizard, ahots onduko emakumea eta ukapenez eta isiltasunez betetako bizitza.

La Malpagá cabaret zitala da, umorea, kritika soziala, poesia eta emozioa eskutik helduta dituen proposamena, gizarte gisa aurreratu dugun guztia gogorarazten digun eszenaratzea egituratzeko, eta arreta jartzen ez badugu atzera egin dezakegu. Beren izaeragatik edo generoagatik isilaraziak izan ziren pertsona guztien omenez sortutako ikuskizuna da, barre, negar edo kantuan entzungo ditugunak.

AKTOREAK

Ángel García Moneo eta **Maria Álvarez**.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Dramaturgia eta zuzendaria: **Ana Maestrojuán** / Eszenografia: **Koldo Tainta eta Producciones Maestras** / Figurinismoa: **Edurne Ibáñez** / Argiztapenaren diseinua: **Koldo Tainta** / Soinu-espazioa eta musika-konponketak: **Gorka Pastor** / Ekoizpen exekutiboa: **Ángel García Moneo** / Ekoizpen laguntzailea: **Arantza Izaguirre** / Diseinu grafikoa: **El Colectivo** / Sareko hedapena: **Marta Elena Martín** / Argazkigintza: **David Muñiz eta Mikel Legaristi** / Makillajea: **Amaia Mendo** / Ikuskizunaren grabazioa: **Acrónica Producciones..**

La Malpagá Producciones Maestrasen ekoizpena da.

Iraupena: **80'**

Informazio gehiago: www.produccionesmaestras.com

@produccionesmaestras

@produccionesmaestrascompan8980

CLAUDIA

Dramaturgia eta zuzendaria: **Carles Fernández Giua**
LA CONQUESTA DEL POLO SUD



ABUZTUAK 4 OSTIRALA

LA CAVA

22:00



Claudia Victoria Poblete Hlaczik Buenos Airesen bizi da, sistema-ingeniarri gisa lan egiten du eta zientzia-fikzioaren zalea da. Claudiak, bizitza "normala" bizi du. Baina, itxura horren azpian, oso ibilbide ezohikoa ezkutatzen da. Emakume gazte hau ingurune militarren balioetan hezia izan zen eta, 21 urterekin, desagertuen alaba zela eta asmatutako bizitza bat bizi izan zuela jakin zuen. Bere kasuak inflexio puntu bat markatu zuen Argentinan, agintari militarren zigorgabetasunaren amaieraren hasiera izan baitzen.

Nola lotzen dira bizitza bereziak eta historia? Zer zentzu dute gaur egungo munduan iraultza, memoria eta hezkuntza bezalako hitzek?

Claudiaren bizi-esperientzia, berak komunikatua, La Conquesta del Polo Sud-ek hiru emakumeren esperientzia erreal eta indibidualaren eta historia kolektiboaren arteko harremanari eskainitako trilogiako dokumental eszeniko berriaren lehengaia da.

SORKUNTZA ETA INTERPRETAZIOA

Claudia Victoria Poblete Hlaczik, Carles Fernández Giua eta Eugenio Szwarcer.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Dramaturgia eta zuzendaria: **Carles Fernández Giua** / Eszenografia eta bideoa: **Eugenio Szwarcer** / Argiztapena: **Luis Martí** / Soinua: **Damien Bazin** / Birako ekoizpen exekutiboa: **Irene Vicente** / Kontratazioa eta komunikazioa: **Lidia Giménez** / Eszenako argazkiak: **Josep Aznar**.

Claudia Grec Festival de Barcelona, CCCB -Centre de Cultura Contemporània de Barcelona, Ajuntament de Terrassa eta La Conquesta del Pol Sud-en ekoizpena da. Institut Català de les Empreses Culturals (ICEC)-ren laguntzarekin eta Institut Ramon Llull eta Casa Àmerica Cataluñaren lankidetzarekin.

Iraupena: **90'**

Informazio gehiago: www.laconquesta.com

UN SEGUNDO BAJO LA ARENA

Col·lectiu Desasosiego Lorca-ren *Bodas de Sangre* lanaren gainean
COL·LECTIU DESASOSIEGO



ABUZTUAK 5 eta 6

LARUNBATA ETA IGANDEA

EZPELETA JAUREGIA (BEIREKO ATERPEA)

20:00

Senargaiaren eta Emaztegiaren arteko ezkontzaren gonbidatuetakik hiru eta musikari bat eztei-oturuntzean harrapaturik gelditu dira, gainerakoak noiz itzuliko diren zain, besteek ezuste sorta baten ondorioz alde egin baitute. Pastel pusken, loreen eta kandela gastatuen artean, gertatu den guztia kontatuko diote ospakizunaren gonbidatu bihurtuko den publikoari.

Un segundo bajo la arena atari zabaleko ikuskizuna da, antzerkia eta zuzeneko musika uztartuta, Federico García Lorca-ren *Bodas de sangre* lanaren argudioa abiaburu hartuta. Esperientzia, ikusle guztiak gonbidatu bihurtuko dira, eten egin den ospakizunari jarraipena emateko eta erritua bururaino eramateko. Publikoa eta interpreteak bereizten dituzten marraz lausotzen dira; horrenbestez, guztiok ere eztei-oturuntza horretako mahaietan eseri, hitz egin eta topa eginen dugu, denok elkarrekin atari zabaleko ganean.

FiraTàrrrega-ko Moritz Saria eman zaio Kaleko Arteen 2022ko estreinaldirik onenaren atalean. Halaber, Kritikaren saria jaso du Novaveu kategorian eta REDESCENA 2023 koadernoak gomendatutako ikuskizuna izan da.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Jatorrizko ideia: **Alex Solsona, Carla Coll** eta **Camille Latron** / Dramaturgia: **Alex Solsona, Carla Coll** eta **Federico García Lorca** / Zuzendari artistikoa: **Pau Serés** / Zuzendari eszenikoa: **Alex Solsona** / Eszenografia: **Camille Latron** / Argiak: **Camille Latron** / Soinua: **Gaspar Corts** / Argazkia: **Maria Alzamora** / Ekoizpen exekutiboa: **Pau Caselles** / Banaketa: **Iariamangement.com**

Un segundo bajo la arena Col·lectiu Desasosiego-ren ekoizpena da, Fira Tàrrrega-rekin batera. Laguntzaileak: Festival Z, Nau Ivanow, Ajutament de Girona, Ajuntament de Figueres eta Departament de Cultura de la Generalitat de Catalunya.

Iraupena: **85'**

Edukiera murriztua: **70 pertsona**

@collectiudesasosiego
@collectiudesasosiego2917

LAS GUERRAS DE NUESTROS ANTEPASADOS

Miguel Delibes

Zuzendaria: **Claudio Tolcachir**

PENTACIÓN Y SECUENCIA 3



ABUZTUAK 5 LARUNBATA

LA CAVA

22:00

Gerretako indarkeriaren aurkako oihu bat da Miguel Delibesen *Las guerras de nuestros antepasados* eleberraren ildo nagusia, 1975ean argitaratua. Protagonistaren izenetik, *Pacífico*, amaiera beldurgarriaraino, Valladolideko egileak bakea defendatu zuen bere orrialdeetan, gerraren eta indarkeriarik ezaren aurrean, bizitzarako bide gisa.

Lan honetan Pacífico Perezen izaera konplexua, boteretsuekiko mendekotasuna, Abuek, Bisak eta Aitak kontatzen zizkioten gerren istorioekin sehaskatik bere oroimenean grabatutako patu baten aurrean zuen etsipen ia frantziskotarra jorratzen dira.

AKTOREAK

Carmelo Gómez eta **Miguel Hermoso**.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA

Zuzendaria: **Claudio Tolcachir** / Antzerki-egokitzapena: **Eduardo Galán** / Argiztapena: **Juan Gómez Cornejo** / Eszenografia: **Mónica Boromello** / Jantziak: **Yaiza Pinillos** / Soinu-espazioa: **Manuel Solís** / Zuzendaritza laguntzailea: **María García de Oteyza** / Ekoizpen-buru: **Pablo Garrido** / Buru teknikoa: **David Pérez Arnedo** / Kudeatzailea/erregidorea: **Álvaro Lizarrondo** / Ekoizpena: **Jesús Cimarro**.

Las guerras de nuestros antepasados Pentación Espectáculos eta Secuencia 3-ren ekoizpena da.

Iraupena: **85'**

Informazio gehiago: www.pentacion.com

Facebook, Twitter, Instagram icons @PentacionEspectaculos

ECLIPSE TOTAL

Dramaturgia eta zuzendaritza: **Àlex Cantó, Joan Collado, Jesús Muñoz eta Pau Pons**
PONT FLOTANT



ABUZTUAK 6 IGANDEA

LA CAVA

22:00



Airea hotz bihurtzen da eta zerua iluntzen hasten da. Diotenez, zakur batzuk uluka ari dira eta erleak pilatu egiten dira erlauntzen sarrera kolapsatuz. Txori batzuek hegan egiten dute nahasian. Denbora gelditu egiten da. Dena isilik dago. Dena iluna da. Dena airean... zer gertatuko den jakin gabe... gau amaigabe honetan betirako egon gaitezkeenaren sentsazioarekin... Baina segundo batzuk geroago, agian minutu batzuk geroago, edo urteak, belaunaldiak, milurtekoak edo existentzia-eonak izan litezke, eguna berriro dator. Emozio sakon batek hartzen gaitu eta gertaera ulertezin baten lekuko izatearen pribilegioa sentitzen dugu. Amaiera posible baten entsegu orokorrean parte hartu dugu.

Nola bizi gara jakinda egunen batean bizirik egoteari utziko diogula? Erabateko eklipsea metafora gisa, aurrerapen gisa, halabehar gaindiezin bate entsegu gisa: gure egunen amaiera.

Errituala umorez blaitzen duen proposamena, transzendentala egunerokoarekin nahasten du, eta arlo sozialarekiko barru-barrukoa eta pertsonala den horretatik abiatzen da.

Kantu bat neurrigabekeriari. Bizitza erlatibizatzen saiatzen den ariketa eszenikoa, agian kontzientzia handiagoz bizitzeko gizateriaren historia osoan gure existentziak dakarren une ñimiñoa.

Eclipse total antzerkigile onenaren Max Saria jaso du 2023an.

AKTOREAK

Àlex Cantó eta Jesús Muñoz.

LANTALDE ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA


Sorkuntza: **Pont Flotant (Àlex Cantó, Joan Collado, Jesús Muñoz eta Pau Pons)** / Interpretazioa: **Àlex Cantó eta Jesús Muñoz** / Argiztapenaren diseinua: **Marc Gonzalo (All)** / Soinuaren diseinua: **Adolfo García** / Espazio eszenikoa eta jantziak: **Pont Flotant** / Aholkulari artistikoa: **Fermín Jiménez** / Eszenografiaren eraikuntza: **Los Reyes del Mambo** / Diseinu grafikoa: **Joan Collado** / Makineria eta kudeaketa: **Yolanda García eta Santi Montón** / Teknikariak biran: **Juan Serra, Javi Vega eta Josep Ferrer** / Koordinazio teknikoak: **Juan Serra** / Argazkigintza: **Nerea Coll** / Promozio bideoa: **Nacho Carrascosa** / Banaketa: **Fiona Maxence, Inma Expósito eta Rafa Jordán (Pro21cultural)**.

Eclipse total antzerkigile onenaren Max Saria jaso du 2023an.

Iraupena: **80'**

Informazio gehiago: www.pontflotant.es

[f](#) [t](#) [i](#) [@](#) [@pontflotant](#)



www.FestivalTeatroOlite.es

#AntzerkiaErriberri2023



Antolatzaileak:



Laguntzaileak:

